# Jardueren memoria

# 2025

Where social meets legal

OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW
–
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA
–
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI



Camiloren ustez, ikerketa soziojuridikoa pentsamendu kritikorako eta eraldaketa kolektiborako tresna ahaltsua da. Harentzat, ikerketa juridikoak teoriatik harago joan behar du: metodologia zehatzak sortu behar ditu, gizarte-errealitatearen ezagutza eta gizarte-arazo larrienei aurre egiteko tresna praktikoak. Bere lanak eragin sozialera bideratutako ikerketarekiko konpromiso sakona islatzen du, justiziaren ezarpena, programa sozialak eta erreforma instituzionalak ikerketa akademikoaren erdigunean kokatuz.

**Camilo Eduardo Umaña Hernández**
*Kriminologian doktorea Ottawako Unibertsitatean.*
*Soziologia Juridikoan doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).*
*LSNE 2025-2027ko zuzendari zientifikoa.*





# Aurkibidea


04 Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea

06 Lege Soziologiako Nazioarteko Masterra

10 Mintegiak

14 Bisitak

16 Bekak

18 Liburutegia

22 Argitalpenak

26 Research Committee on Sociology of Law (RCSL)

28 Oñati Community

30 Erakunde-harremanak

32 Inpaktu-mapa

## Nor gara

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea (LSNE) orientazio akademikoko irabazi-asmorik gabeko erakundea da, erregimen publikoko fundazio pribatu gisa eratua. Estatutuen arabera, LSNE zuzenbidearen soziologiako nazioarteko ikerketa zientifiko eta teknikoan aritzen da, eta nagusiki Euskadin garatzen ditu bere eginkizunak.

LSNE 1988an sortu zuten Eusko Jaurlaritzako eta Lege Soziologiako Ikerketa Batzordeko (RCSL) ordezkariek, Soziologiako Nazioarteko Elkartearen barruan. Bere egoitza, zerbitzu nagusiak eta lege-soziologian espezializatutako liburutegia Oñatiko Unibertsitate Zaharrean daude. Gune horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak lagatakoak dira. Gainera, LSNEk Antia egoitzan ostatu hartzeko aukera ematen die erabiltzaileei, Santa Marina plazako 5. zenbakian, Oñatiko erdigunean. XVIII. mendeko eraikin historikoa da, Oñatiko Udalarena.

LSNE estu lotuta dago Euskal Herriko beste erakunde publiko batzuekin, tartean Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) eta Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioarekin. LSNEko zientzia-zuzendaria bi erakundeetako kidea da. Hala, LSNEk Lege Soziologiako Nazioarteko Master Programa bat antolatzen du EHUrentzat.

## Xedea

Bere Estatutuen arabera, LSNEren helburu nagusia zuzenbidearen soziologiako ikerketan aurrera egitea da, eztabaida akademikoaren, analisiaren eta alderaketaren bidez eremu guztietan izandako garapenei aktiboki jarraituz. Horretarako, LSNEk harremanak ditu Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta beste euskal erakunde batzuekin, tokiko testuinguruan integratzen laguntzeko eta euskal herriarekin, bertako gizartearekin eta kulturarekin harremana izateko.

## Ikuspegia

LSNEk eredu izan nahi du nazioarteko lege-soziologian. Estatutuen arabera, horrek, batez ere, ikerketa zientifikorako benetako espiritua sortzea ekarriko luke, gaitasun akademikoaren ezein helburuk oztopatuko ez lukeena. Aitzitik, motibazio nagusia izango litzateke elkarrengandik ikastea, kritika konstruktiboak egitea eta esperientziak, pertzepzioak eta ezagutzak partekatzea.

## Balioak

# IKERKETA
# BERRIKUNTZA
# LANKIDETZA
# ZERBITZUA
# GARDENTASUNA
# KALITATEA

## Patronatua

### Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritzako kideak

**Alfonso Gómez Fernández** *(Presidentea)*
**Itziar Alkorta Idiakez**
**José María Bastos Marzal**
**Noé Cornago Prieto**
**Dolores Morondo Taramundi**
**Edmundo Rodríguez Achutegui**
**Benjamín Tejerina Montaña**

### RCSLren ordezkaritzako kideak

**Pierre Guibentif**
**Ole Hammerslev**
**Teresa Picontó-Novales**
**Shalini Randeria**
**Ulrike Schultz**
**Dee Smythe**

## Taldea

### Zuzendaritza-taldea

ZIENTZIA ZUZENDARIA
**Camilo Eduardo Umaña Hernández** - *Ikerbasque - EHU*

ADMINISTRAZIO ZUZENDARIA
**Maite Elorza Plazaola** *(2025eko urtarrila-urria)*
**Eva Martínez Villar** *(2025eko azaroa-abendua)*

LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO MASTERRAREN ZUZENDARITZA
**Iker Nabaskues Martínez de Eulate** - *EHU*

### Administrari taldea

**Manttoni Kortabarria Madina**
*Administrazioa, RCSL*

**Leire Kortabarria**
*Argitalpen programa*

**Ainhoa Markuleta Letamendi**
*Akademiko bisitarien programa*

**Susana Arrese Murguzur**
*Master programa, Oñati Community*

**Rakel Lizarralde Maiztegi**
*Liburutegia*

**María Jesús Mesonero Encinar**
*Kontabilitatea eta kalitatea*

**Malen Gordoa Mendizabal**
*Mintegiak, kongresuak, bilerak, uda ikastaroak, egonaldi bekak*

+ info: master@iisj.es

# Lege Soziologiako Nazioarteko Masterra

## EHUko Master ofiziala

Ikerketara bideratutako programa, ikerketa sozio-juridikoko proiektuei ekiteko oinarri kontzeptualak eta trebetasun metodologikoak ematen dituena.

Gainera, LSNEk, EHUrekin eta Milango Unibertsitatearekin batera, gradu bikoitza egiteko aukera eskaintzen die ikasleei: Lege Soziologiako Nazioarteko Unibertsitate Masterra/LLM in Law and Sustainable Development.

UNIVERSITÀ DEGLI STUDI DI MILANO

EHU

IISL
LSNE
IISJ

# 2024/2025 Programa

### Quantitative Approaches to Research
SOCIO-LEGAL RESEARCH AND THESIS SEMINAR II
*Urt. 07 - 10 2025*



**Ignacia Perugorría**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

### Qualitative Approaches to Research
SOCIO-LEGAL RESEARCH AND THESIS SEMINAR III
*Urt. 13 - 17 2025*



**Santiago Amietta**
Keele University

### Beyond Law and Technology: Socio-legal Approaches to the Digital Era I
NEW ISSUES IN SOCIO-LEGAL STUDIES
*Urt. 20 - 31 2025*

### Anthropological Approaches to Justice: A Decolonial Introduction to Key Problems, Methods, and Perspectives
ANTHROPOLOGY OF LAW
*Ots. 03 - 14 2025*



**Martin Ramstedt**
Max Planck Institute for Social Anthropology

### Global Justice and Transnational Legal Mobilization
THE SOCIOLOGY OF LITIGATION AND DISPUTE RESOLUTION
*Ots. 17 - 28 2025*



**Karolina Kocemba**
European University Institute
**Michał Stambulski**
Erasmus University Rotterdam

### Glocalisation and Crime
SOCIOLOGY OF CRIME AND DEVIANCE
*Mar. 03 - 14 2025*



**Gema Varona**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

### Law and Political Economy
GLOBALISATION, THE ECONOMY AND SOCIOLOGY OF LAW II
*Mar. 17 - 28 2025*



**Anna Chadwick**
University of Glasgow
**Ioannis Kampourakis**
Erasmus University Rotterdam

# 2025/2026 Programa

## Law and technological culture: Artificial intelligence and Human Rights: transhumanism, neuro-rights and bioethics
NEW ISSUES IN SOCIO-LEGAL STUDIES I
*Ira. 22 - 26 2025*



**Iker Nabaskues**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

## The irruption of artificial intelligence in the field of the legal professions and judicial organization
NEW ISSUES IN SOCIO-LEGAL STUDIES II
*Ira. 29 - Urr. 03 2025*



**Xabier Fernández Galarreta**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

## Migration and Law: Governance, control and integration
GLOBALISATION, THE ECONOMY AND SOCIOLOGY OF LAW
*Urr. 06 - 10 2025*



**Iker Barbero**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

## Law and Social Theory
LAW AND SOCIAL THEORY
*Urr. 13 - 24 2025*



**Marta Bucholc**
University of Warsaw

## Legal Cultures: A Comparative Perspective
SOCIO-LEGAL RESEARCH AND THESIS SEMINAR I
*Urr. 27 - 31 2025*



**Joxerramon Bengoetxea**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

## Psychosocial Processes in the Courtroom
THE SOCIOLOGY OF LITIGATION AND DISPUTE RESOLUTION
*Aza. 03 - 14 2025*



**Mateusz Stepien**
Jagiellonian University

## Quantitative Approaches to Research
SOCIO-LEGAL RESEARCH AND THESIS SEMINAR II
*Aza. 17 - 21 2025*



**Ignacia Perugorría**
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

## Behaviour of Legal Professionals and Institutional Context
LEGAL PROFESSIONS, THEORY & PRACTICE
*Aza. 24 - Abe. 05 2025*



**Karina Ansolabehere**
Universidad Nacional Autónoma de México

## Original Nation Approaches to Inter-National Law
MAIN ISSUES IN CONTEMPORARY SOCIOLOGY OF LAW
*Abe. 08 - 19 2025*



**Hiroshi Fukurai**
University of California, Santa Cruz

**10** UNIBERTSITATEKO **17** IRAKASLE

**17** HERRIALDETAKO **23** IKASLE

**9** HERRIALDETAKO **12** IKASLE KURTSO SOLTEETAN





+ info: workshop@iisj.es

# Mintegiak

Oñatiko lege soziologiako Nazioarteko Erakundeak Lege Soziologiari lotutako gaiei buruzko eztabaidak eta ideiak trukatzeko leku aproposa eskaintzen du.

Mintegiak Oñatiko Unibertsitate Zaharraren eraikinean egiten dira (1540an sortutako eraikin errenazentista). Parte-hartzaileek herriko erdigunean dagoen Antia egoitzan (XVIII. mendeko eraikina) hartu ahal izango dute ostatu.

## Legal Mobilization and Infrastructures of Protest Culture

## The legal afterlife of war and revolution

## Legal Survivals and Global Legal Pluralism

## Deliberalization of Democracies? Understanding Regression of Rights and the Criminalization of Struggles for Rights in the Global South and North

## Sexual and Reproductive Health and Rights (SRHR) under the Spectrum of Sex, Gender and Sexuality

**Assisted Reproduction Is Coming of Age: ARTs before the Legislative and Social Claims of the Conceived**

**Tourism and Sustainability? Toward a new socio-legal research agenda**

**Workshop for the Expert Research Group: "Best practices for remote participation in criminal proceedings"**

**Theorizing Carceral Desires, Imagining Non-Carceral Futures: Methodologies and Conceptual Frameworks**

**The Power of Humiliation in XXI century: law, society, culture**

**Life after exoneration; is the worst yet to come?**

**Gender Just Transitions: Cultivating Equality For A Sustainable Economy**

**The impact of artificial intelligence on popular culture and law: a socio-legal analysis**

**Finding Nomos: Revisiting Legal Anthropology's Critical Empirical Grounds**
***A Workshop on How Law Matters.***

**The law of Global Value Chains: Theory and Practice at Work**

**36** UNIBERTSITATEKO **50** KOORDINATZAILE

**271** PARTE-HARTZAILE




IISL
LSNE
IISJ




WORK




IISL
LSNE
IISJ














+ info: visiting@iisj.es

# Bisitak

Urtero 40 bisitari inguru etortzen zaizkigu mundu osotik, eta hori, berez, truke akademikorako aukera paregabea da.

Bisitariek gure liburutegia erabiltzen dute, lege-soziologiaren arloan erreferente dena munduan. Gainera, Antia egoitzan ostatu har dezakete, beren ikerlanekin jarraitzeko, elkartzeko eta atseden hartzeko lekua.

**21** HERRIALDETAKO

**50** IKERTZAILE

### Lindberg, Anya
University of Minnesota - Estatu Batuak
*Urt. 06 - 09 2025*

### Agnella, Costanza
Università degli Studi di Torino - Italia
*Urt. 07 - 17 2025*

### Ruiz Rivera, Naxhelli
UNAM - Mexiko
*Urt. 07 - 26 2025*

### Monnereau, Anna Camille Dominique
Bangor University - Erresuma Batua
*Urt. 07 - Ots. 03 2025*

### Esteve Alguacil, Laura
Universitat de València - Espainia
*Urt. 07 - Ots. 09 2025*

### Vrána, Hynek
Masaryk University - Txekiar Errepublika
*Ots. 02 - 16 2025*

### Budeanu, Delia-Elisa
Universidad Carlos III - Espainia
*Ots. 17 - 25 2025*

### Zimmermann, Wim
University of Salzburg - Austria
*Ots. 17 - Mar. 03 2025*

### Millaleo Hernández, Salvador
Universidad de Chile - Txile
*Ots. 18 - Mar. 06 2025*

### Budeanu, Delia-Elisa
Universidad Carlos III - Espainia
*Mar. 04 - 07 2025*

### Van der Aa, Suzan
Maastricht University - Herbehereak
*Mar. 17 - 22 2025*

### Gutmann, Andreas
Kassel University - Alemania
*Ots. 24 - Mar. 23 2025*

### Green, Simon
University of Hull - Erresuma Batua
*Mar. 17 - 28 2025*

### Budeanu, Delia-Elisa
Universidad Carlos III - Espainia
*Mar. 24 - 31 2025*

### Flores Castillo, Ashley
Universidad Veracruzana - Mexiko
*Mar. 03 - Api. 03 2025*

### Hadad, Dina
Université Paris Nanterre - Frantzia
*Mar. 22 - Api. 05 2025*

### Ochodková, Kateřina
Masaryk University - Txekiar Errepublika
*Mar. 04 - Api. 15 2025*

### Alizadeh Westerling, Frida Carolina
University of Helsinki - Finlandia
*Mai. 12 - 17 2025*

### Rojas Paez, Gustavo José
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) - Espainia
*Mai. 14 - 23 2025*

### Bakan, Joel
University of British Columbia - Kanada
*Mai. 20 - 27 2025*

### Pavlou, Vera
University of Glasgow - Erresuma Batua
*Eka. 02 - 09 2025*

### Faustino, Isabella
University of Coimbra - Portugal
*Eka. 02 - 13 2025*

### McKay, Carolyn
University of Sydney - Australia
*Eka. 14 - 21 2025*

### Rodak, Lidia
University of Silesia - Italia
*Eka. 22 - 28 2025*

### Chérrez Bermejo, Ana Mónica
Universidad Pública de Navarra - Espainia
*Uzt. 06 - 11 2025*

### Dioso-Villa, Rachel
Griffith University - Australia
*Eka. 26 - Uzt. 11 2025*

### Blázquez Ruiz, F. Javier
Universidad Pública de Navarra - Espainia
*Uzt. 06 - 11 2025*

### Rosario, Iris
Universidad de Puerto Rico - Puerto Rico
*Eka. 15 - Uzt. 14 2025*

### Suárez Ávila, Alberto Abad
UNAM - Mexiko
*Uzt. 14 - 18 2025*

### Pizzolatto Konzen, Lucas
Federal University of Rio Grande do Sul - Brasil
*Uzt. 13 - 19 2025*

### Krištofík, Andrej
Masaryk University - Txekiar Errepublika
*Uzt. 01 - 20 2025*

### Ceresa Gastaldo, Francesca
University of Genoa - Italia
*Ots. 28 - Uzt. 20 2025*

### Lopez Espino, Jessica Susana
University of California - Estatu Batuak
*Uzt. 19 - 30 2025*

### Munro, Rebecca
University of Warwick - Erresuma Batua
*Ira. 10 - 17 2025*

### Jackson, Jonathan
London School of Economics and Political Science - Erresuma Batua
*Ira. 10 - 27 2025*

### Caltekin, Demet Aslı
Durham University - Erresuma Batua
*Ira. 11 - Urr. 01 2025*

### Carey, Samuel
Stockholm University - Suedia
*Ira. 15 - Urr. 03 2025*

### Bonfigli, Fiammetta
University of Vienna - Austria
*Ira. 22 - Urr. 06 2025*

### Vrolijk, Marloes
University of Antwerp - Herbehereak
*Urr. 05 - 12 2025*

### Skoblik, Konstantin
University of Helsinki - Finlandia
*Ira. 23 - Urr. 20 2025*

### Hoehn, Felix
University of Saskatchewan - Kanada
*Ira. 23 - Urr. 22 2025*

### Meier Rivadeneira, Pablo
Universidad Santiago de Chile - Txile
*Urr. 12 - 26 2025*

### Di Luciano, Carolina
University of Turin - Italia
*Urr. 08 - 28 2025*

### Woodlock, John
Lund University – Suedia
*Urr. 03 - Aza. 01 2025*

### Chase, Anthony Tirado
Occidental College - Estatu Batuak
*Aza. 04 - 12 2025*

### Capriles Moreno, Victoria
Universidad Metropolitana - Venezuela
*Aza. 10 - 14 2025*

### Ostau De Lafond De Leon, Francisco Rafael
Universidad Católica de Colombia - Kolonbia
*Abe. 02 - 06 2025*

### Dahlvik, Julia
University of Applied Sciences Campus Wien - Austria
*Abe. 01 - 12 2025*

### Ionita, Laura
Universidad de La Laguna - Espainia
*Urr. 11 - Abe. 19 2025*

### Quirk, Jack
Brown University - Estatu Batuak
*Abe. 01 - 20 2025*

### Avila Currás, Mónica
Vrije Universiteit Amsterdam (VU) - Herbehereak
*Aza. 23 - Abe. 23 2025*

### Tukwariba Yin, Elijah
University of Cape Coast - Ghana
*Aza. 28 2025 - Urt. 07 2026*

# Mariella Carrino Grant-in memoriam beka

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak (LSNE) eta Carrino familiak “Ikerketa soziojuridikoa sustatzeko Mariella Carrino urteko programa” sortu dute.

Mariella Carrinoren eta hark egin zuen eta gerora argitaratu zen doktorego-tesiaren oroimenez sortutako programa horren bidez, familiak gizarte-gatazkari, etxebizitza-politikei eta etxebizitzarako eskubideari buruzko ikerketa zientifikoak sustatu nahi ditu, arlo horietan interesa duten ikertzaile gazteen karrera erraztea aldera. Horretarako, urtean 4.000 euroko ekarpen ekonomiko bat egingo du.






# Antia egoitza

Antia egoitza XVIII. mendeko eraikin historikoa da, eta Institututik minutu gutxira dago.

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen Patronatuak egonaldi-bekak eskaintzen ditu Institutuko Liburutegian egin beharreko lan-proiektu bat duten bisitarientzat, dela doktoregoko ikasleentzat (gehienez 2 hilabeteko egonaldia), dela doktoretza ondoko ikertzaileentzat (gehienez 2 asteko egonaldia), irakasle bisitari gisa egonaldia luzatzeko aukerarekin. Gainera, egoitzan egoteko bekak eskaintzen zaizkie Masterreko ikasleei.









**Jay, Matthew**
University College London, Erresuma Batua
*Urt. 07 - 21 2025*

**Zimmermann, Wim**
University of Salzburg, Austria
*Ots. 03 - 16 2025*

**Heredia Ligorria, Cristian Javier**
University of the West of England, Erresuma Batua
*Urr. 12 - Aza. 12 2025*

**Struppe-Schanda, Julia**
Sigmund Freud University Vienna, Austria
*Aza. 09 - Abe. 05 2025*

+ info: iisl.library@iisj.es




# Liburutegia

Liburutegia, 1989an inauguratua eta lege-soziologian espezializatua, erabiltzaile guztientzat dago zabalik. Liburuen gaikako sailkapen-sistemak, berariaz diseinatuak, lege-soziologiako arloak eta azpiarloak garatzen ditu.

Bi irakurgeletan 22.000 liburu baino gehiago kontsulta daitezke, Zuzenbidearen Soziologiari buruzko aldizkarien eta beste gai batzuetakoen bilduma osatu batekin batera.

Katalogoak 120.000 liburu-erregistro baino gehiago ditu, lan kolektiboetako kapituluak, aldizkarietako artikuluak eta dokumentu elektronikoak, gako-hitzekin aztertuta. Gainera, erabiltzaileak LSNEren online katalogora eta Euskal Herriko Unibertsitateko katalogora sar daitezke.






## Eskuraketak

**159** LIBURU DOHAINTZA

**187** BESTE BALIABIDE ELEKTRONIKO BATZUK

## Dohaintza ekonomikoa

**2.000€** WANDA CAPELLERena, André-Jean Arnauden omenez

## Erabilera-estatistikak

**24** MASTERREKO IKASLE

**17** MASTERREKO IRAKASLE

**48** IKERTZAILE

Liburuen eta beste material batzuen

## Harpidetzak

**2** INPRIMATU

**5** INPRIMATU + ELEKTRONIKO

**5** ELEKTRONIKO

**+447** BISITA FISIKO

**+2.759** BISITA BIRTUAL

**+23.006** LIBURUKI

LIBURUEN ETA BESTE MATERIAL BATZUEN **+121.021** ERREGISTRO



# Eskerrik asko

Thank you • Gracias





**EMAILEAK / DONORS / DONANTES** • Agostino Carrino & Giuliana Stella • Alazne Irigoien, Juana Goizueta y Maggy Barrére • Alfons Bora • Alicia Cárdenas • Asier Martínez de Bringas • Asociación Freytter • Blanca Rodríguez Ruiz • Cambridge University Press • Camilo Umaña • Centro Memorial de las Víctimas de Terrorismo • David Vila-Viñas • Deusto University - Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe • Dolores Morondo • Emakunde • Emakunde • Enara Garro • Fernando León Tamayo • Gema Varona • Giacomo Franzoso • Gobierno Vasco (Servicio Central de Publicaciones) • Hugo Rojas • Ihintza Palacin • Iñigo Gordon Benito • Iñigo Gordon Benito • Iris Y. Rosario • Isabella Faustino Alves • Jon-Mirena Landa • Joxerramon Bengoetxea • Juan Felipe Parra Rosas • Karina Ansolabehere • Karina Ansolabehere • Leticia Mancini • Luigi Cominelli • Luisa Winter Pereira • Mª José González Ordovás • Marco Alonso Rodríguez • María José González Ordovas • Mikel Anderez • Orlando Roselli • Pedro Caeiro • Pierre Guibentif • Sajjad Adeliyan Tous • Sara Arruti • Scott Veitch • Sharyn Roach Anleu • Tirant lo Blanch • Tomasz Giaro • Wanda Capeller • Werner Orellana •

+ info: publications@iisj.es

# Argitalpenak

Lege-soziologiaren arloko ikerketa berritzaileak argitaratzeko gune paregabea da Institutua. LSNEn egiten diren mintegiak aparteko abiapuntua dira kalitate handiko liburu-sailen argitalpenak garatzeko, Euskadirekin lotutako gaiei arreta berezia eskainiz. Gainera, artikulu zientifikoak argitaratzen ditugu gure OSLS eta SORTUZ aldizkarietan.

## Oñati Socio-Legal Series

ALDIZKARIA

Nazioarteko aldizkari honek lege-soziologiaren esparruan bildutako lanak argitaratzen ditu, zuzenbidea erakunde sozial, prozesu, praktika edo teknika multzo gisa ulertu eta aztertu nahi duten ikerlanak barne, gizarte-zientziei eta humanitateei dagozkien metodologia eta ikuspegia erabilita.

EUROPEAN DIAMOND Capacity Hub

2025 CALIDAD REVISTAS CIENTÍFICAS ESPAÑOLAS

**6** ZENBAKI

**108** ARTIKULU

**27** HERRIALDETAKO EGILE

**250** EBALUATZAILE

### Zergatik argitaratu artikulu bat gurekin?

Honako hauek eskaintzen ditugu:

- Argitalpen-esperientzia erabat doakoa (artikuluak kudeatzeagatik kargurik gabe).
- Kalitate handiko itsu bikoitz bidezko berrikuspena, mundu osoko adituek egina eta artikulua hobetzeko iradokizunak emango dituztenak.
- Artikuluaren edizio pertsonalizatua eta profesionala, irakurgarritasuna eta erakargarritasuna maximizatzeko.
- Gure argitalpen aurreratuko First Online modalitatearen bidez onartutako eta editatutako artikulu baten berehalako erabilgarritasuna.
- Egileek erreserbatuta dituzte egile-eskubideak, berriro argitara dezakete bahitura-aldirik gabe.




Vol. 15 No. 1 (2025)

## El derecho a la vida familiar y el impacto de la autonomía y el afecto en la adopción

**Natalia de la Torre, Marisa Herrera y Federico Notrica**
Universidad de Buenos Aires/
Universidad Nacional de Avellaneda




Vol. 15 No. 2 (2025)

## Judges under stress: Institutions, ideology and resistance

**Peter Čuroš** - Nomos: Centre for International Research on Law, Culture and Power based at the Jagiellonian University in Kraków




Vol. 15 No. 3 (2025)

## Social and legal challenges of the new paradigm of intellectual disability. A commitment to human rights, inclusion and equality

**Ana Isabel Herrán Ortiz** - Universidad de Deusto




Vol. 15 No. 4 (2025)

## Sociology of law and prison studies: The social uses of law within the prison's legal field

**Luca Sterchele** - Università degli Studi di Torino
**Francesca Vianello** - Università di Padova




Vol. 15 No. 5 (2025)

## Decolonising Plural Legal Orders, Decentring Epistemological Paradigms

**Katrin Seidel y Martin Ramstedt**
Martin Luther University Halle-Wittenberg




Vol. 15 No. 6 (2025)

## Gender in Customary and Indigenous Law and Proceedings

**Ulrike Schultz** - FernUniversität Hagen
**Maria Rita Bartolomei** - University of Messina
**Sara Araújo** - University of Maia

# Argitalpenak

## Sortuz: Oñati Journal of Emergent Socio-Legal Studies

ALDIZKARIA

Aldizkari honek toki birtuala baina erreala izan nahi du, zuzenbidearen eta gizartearen arloan sortzen ari den komunitatea indartzeko, kalitatezko ikerketa zabalduz. Sortuz aldizkariak topagunea ere izan nahi du Oñatiko komunitatearen irismena aurretik LSNErekin harremanik izan ez dutenengana zabaltzeko.




Vol. 15 No. 1 (2025)

### Fake news, democracy, and law – Contemporary challenges

**Izabela Zonato Villas Boas** - Universidade Presbiteriana Mackenzie
**Leire Kortabarria** - Oñati LSNE




Vol. 15 No. 2 (2025)

### The Magic of Rights? Potentials and Limitations of Rights of Nature from Plural Perspectives

**Dirk Hanschel** - University of Halle-Wittenberg/ Max Planck Institute for Social Anthropology
**Annette Mehlhorn** - Humboldt University of Berlin/ Max Planck Institute for Social Anthropology
**Jenny García-Ruales** - Philipps University of Marburg/ Max Planck Institute for Social Anthropology

**2** ARGITALPEN

**31** ARTIKULU

EGILEAK **14** HERRIALDETAKOAK

**70** EBALUATZAILE

## Oñati International Series in Law and Society
LIBURUA

Liburuki horiek eklektikoak dira diziplinari, metodologiari eta ikuspegi teorikoei dagokienez, baina guztiek dute izaera konparatiboa. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak antolatutako tailerretan du jatorria, eta arretaz berrikusten dira Hart-en eta kanpoko ikuskatzaileekin.




### Parole Futures: Rationalities, Institutions and Practices
**Harry Annison**
**Nicola Carr**
**Thomas Guiney**
Editores de Anthology




### Socio-Legal Trajectories Across Europe: Comparative Perspectives
**Christian Boulanger**
**Naomi Creutzfeldt**
**Jennifer Hendry**
Editores de Anthology

## Oñati: Derecho y Sociedad
LIBURUA

Dykinson argitaletxeak argitaratu eta banatutako saila. Gaztelaniaz argitaratutako sail honek bai Espainian bai Latinoamerikan zuzenbidearen soziologian izandako azken aurrerapenak eta joerak eskaintzen ditu. LSNEren sailaren editoreen panelak berrikusi, komisariatu eta editatzen ditu.




### La Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación: Aportaciones multidisciplinares y teórico-críticas
**Alazne Irigoien Domínguez**
**Juana Goizueta Vértiz**
**Maggy Barrère Unzueta**
Colección Oñati: Derecho y Sociedad -- Dykinson
2025 - 406 - ISBN: 979-13-7006-488-4

# Research Committee on Sociology of Law (RCSL)

Zuzenbidearen Soziologiako Ikerketa Batzordea (RCSL) 1962an sortu zen Soziologiako Nazioarteko Elkartearen (ISA) 12. zenbakiko Ikerketa Batzorde (RC12) gisa, nazioartean ikerketa eta irakaskuntza soziojuridiko konparatuak sustatzeko helburuarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuarekin batera, LSNE sortu zuen 1988ko abenduaren 23an sinatutako hitzarmen baten bidez. Orduz geroztik, Erakundearen kudeaketan parte hartzen du eta bere jardueretan laguntzen du.

Lehendakaria (2023-2027):
**Pierre Guibentif**
Idazkaria (2023-2027):
**Stefanie Lemke** (2025eko otsailera arte);
**Laura Noemi Lora** (2025eko uztailetik aurrera)

**49** HERRIALDETAKO

**261** KIDE




### Justizia ezagutzen Antropozenoan ISA Soziologiako V. Foroan, RCSLren partaidetzarekin

RCSLren Urteko Bilera 2025ean (programaren koordinatzailea Pierre Guibentif izan zen) RCSLk AISen Soziologiako V. Foroan parte hartu zuen. Foro hori Rabaten (Maroko) egin zen 2025eko uztailaren 6tik 11ra, eta «Justizia Antropozenoan ezagutzea» izan zuen hizpide. Esparru horretan, RCSLk 18 saio tematiko antolatu zituen, eta beste ikerketa-batzorde batzuek antolatutako hiru saiotan parte hartu zuen. RCSLren webgunean programa xehatua kontsulta daiteke. Shalini Randeriak, AISek LSNEren Administrazio Kontseiluan duen ordezkariak, LSNE aurkeztu zuen hasierako bileran eta RCSLren batzarrean.

2025eko Urteko Bilera horren testuinguruan, RCSLk 2004an sortutako Podgórecki Saria ex aequo eman zien Susana Santosek (presidentea), Ferdinando Spinak eta Joao Vellosok osatutako epaimahai batek Hækan Hydén eta Ulrike Schultz-i.

**29** HERRIALDETAKO

**122** PARTE-HARTZAILE

2025eko Urteko Bileraz gain, RCSLk bi web-mintegi egin zituen Stefanie Lemkek antolatuta: bata, urtarrilaren 14an, «Balio-kate globalak denbora-ikuspegitik» proiektuari buruzkoa; bertan, Sistema Sozial eta Juridikoei buruzko Lantaldea aurkeztu zen, Stine Piilgaard Porner Nielsen eta Luisa Teresa Hedler Ferreiraren hitzaldiekin; eta bestea, martxoaren 11n, Gatazkak Konpontzeari buruzko Lantaldea aurkeztu zen eta Italiako eta Japoniako bitartekaritza-prozedurak alderatu ziren, Hideaki Irie eta Luigi Cominelliren ponentziekin.

RCSLk antolatutako bilerez gain, RCSLko lantalde batzuek beren bilerak antolatu zituzten. Hala, uztailaren 17tik 18ra, Herri Zuzenbide eta Kulturari buruzko RCSLko lantaldeak tailer bat egin zuen LSNEn, «Adimen artifizialak herri-kulturan eta zuzenbidean duen eragina: azterketa soziojuridikoa» gaiari buruz. Tailer hau Iker Nabaskues eta Francisco Javier Fernández Galarretak antolatu zuten eta Stefan Machura Lantaldeko presidenteak aurkeztu zuen, “Zuzenbidea eta teknologia herri-kulturan” izenburuko inaugurazio-hitzaldiarekin. Gainera, Kultura Juridiko Konparatuari buruzko Lantaldeak eta Zuzenbideari eta Kontzientzia Juridikoari buruzko Ezagutza eta Iritziari buruzko Lantaldeak tailer bat antolatu zuten elkarrekin 2025eko abenduaren 8an Budapesten, Eötvös Loránd Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean, Balázs Fekete eta Agnieszka Kubal-en eskutik.

Bestalde, Lanbide Juridikoen Azterketa Konparatuei buruzko Lantaldeak 2026ko bilera prestatzen hasi da. Bilera Rotterdamgo Erasmus Unibertsitatean izango da, 2026ko ekainaren 22an eta 23an, eta «Abokatuak eta zuzenbide-estatua presiopean» gaia jorratuko du.

2025az geroztik, RCSLren Buletinak argitalpen talde berri bat du, Julia Dahlvik eta Luisa Hedler editore buruek osatua diseinu berri batekin Patrícia André, RCSLren web administratzaile berria. Talde berri hau Pablo Ciocchiniren dimisioaren ondoren sortu zen. Ciocchinik RCSLren buletina koordinatu zuen 2019 eta 2024 bitartean. Aurreko urteetan bezala, bi ale argitaratu ziren: 2025ean (1), martxoaren 21ean, eta 2025ean (2), abenduaren 11n. Besteak beste, Javier de Lucasek Elías Días eta Yan Sénechalek Guy Rocher omendu zituen.

2025eko udaberrian, RCSLk 2026ko Urteko Bilera prestatzen hasi zen, Txileko Santiagon. Topaketa hau Aldo Mascareñok antolatu du eta “Zuzenbide demokratikoko estatua munduko gizartean” gaia jorratuko du, Rabat 2025eko Urteroko Bileran iragarri zena. Topaketaren webgune ofiziala eta hitzaldien deialdia azaroaren 7an argitaratu ziren, eta laburpenak bidaltzeko azken eguna abenduaren 29a izan zen (geroago, 2026ko urtarrilaren 18ra arte luzatu zen).

Era berean, 2025. urtea lan handiko urtea izan da Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Entziklopediaren prestakuntzan. Ulrike Schultz, Hækan Hydén eta Peter Scharff Smith editore orokorrek koordinatu dute argitalpen hori, eta RCSLko lantalde gehienen parte-hartze aktiboa izan du. 2026. urtearen amaierarako argitaratzea aurreikusi da.

Gainera, RCSLren Zuzendaritza Batzordearen bi bilera egin ziren, martxoaren 11n eta irailaren 30ean. Gai-zerrendako puntu nagusien artean, LSNErekin lotutako gaiak zeuden. Horrela, martxoan LSNEko zuzendari zientifikoaren postua betetzeko deialdia sustatu nahi izan zen, eta irailean Camilo Umaña aurkeztu zen zuzendari zientifiko berri gisa, zeinak ikerketa-programa berri bat sartu zuen LSNErako.

Matías Castro de Achaval Sociedad Argentina de Sociología Jurídica (SASJu) elkarteko presidenteak eta Latinoamerikako eta Karibeko Zuzenbide eta Gizarte Elkarteko (ALADES) presidenteak gonbidatuta, Pierre Guibentifek SASJu elkartearen urteko bileran parte hartu zuen, 2025ean, San Miguel de Tucumanen, urriaren 22tik 24ra, Soziologia Juridikoari buruzko Latinoamerikako XV. Pre-Kongresuarekin bat eginez, RCSLren eta Latinoamerikako elkarte soziojuridikoen arteko loturak indartzeko helburuarekin.

2025. urtean zehar, RCSLren parte-hartzea bereziki handia izan da LSNEren funtzionamenduan. Zehazki, RCSLk laguntza eman zion Shalini Randeriari, zeina LSNEren Administrazio Kontseiluan ISAren ordezkari izendatu berria izan baitzen, Geoffrey Pleyer ISAko presidenteak, zeinak LSNEren historian eta egungo errealitatean sartu baitzuen. Halaber, haren ordezkariek aktiboki parte hartu zuten LSNEren Patronatuaren hiru bileratan. Masayuki Murayama, RCSLko presidente ohia, RCSLko Izendapenen Batzordeko buru izan zen. Batzorde hori arduratzen da zuzendari zientifiko berriaren posturako deialdia kudeatzeaz -martxoan argitaratua-, eta, LSNEko Patronatuaren erabakiz – RCSLko Izendapenen Batzordeak eta Ikerbasquek jasotako hautagaitzak ebaluatu ondoren –, Camilo Umaña izendatu zuten LSNEko zuzendari zientifiko berri gisa. Azkenik, Teresa Picontó Novales LSNEk eta EHUk master-programari buruz sinatutako hitzarmenaren jarraipen-batzordeko kide izan zen, eta Pierre Guibentif LSNEren Patronatuaren Batzorde Delegatuko kide izan da denbora horretan.

# Oñati Community

2016an ezarri zen Oñatiko Erkidegoa, eta haren helburua da LSNErekin lotutako pertsonen arteko loturak sendotzea eta mantentzea. Azken urteotan, ikerketa soziojuridikoen eremuan parte-hartze akademikoa, elkarrizketa eta lankidetza sustatzeko plataforma aktibo gisa finkatu da.

Hona hemen jarduera-arlo nagusiak:

- Nazioarteko web akademikoen mintegiak antolatzea
- LSNEren ikerketa-lerroak koordinatzea
- Mentoretza-programa bat garatzea
- Manolo Calvo Sariaren kudeaketa
- LSNEren sare globala komunikatzea eta indartzea

**66** HERRIALDETAKO

**726** KIDE




## LSNEren 2026rako ikerketa-lerroen aurkezpena

2025eko azaroaren 26an, asteazkenean, zuzendari zientifikoak, Oñatiko Komunitatearekin lankidetzan, 2026rako LSNEren Ikerketa Lerroen aurkezpena antolatu zuen.

Harrezkero, sei ikerketa-ildo jarri dira abian, eta 200 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

## Mentoreen programa

Oñatiko Komunitatea bere sare zabal eta aditua aprobetxatzen ari da mentoreak eta ikasleak harremanetan jartzeko bere Mentoria Programaren bitartez. Parte-hartzaile interesatuek, dela aholkulari gisa, dela ikasle gisa, hamar ikerketa-arlo baino gehiago hartzen dituen inprimaki bat betetzen dute, eta mentoria akademikorako edo profesionalerako bide bat nahiago duten adierazten dute. Formulario horietatik abiatuta, ahalik eta bikote onenak sortzeko lanean ari dira antolatzaileak.

Mentoreen eta ikasleen arteko lehen bilera 2023ko maiatzean izan zen, eta horrek aukera eman zuen Oñatiko Komunitateko Mentoretza Programaren etorkizuneko edizioetan esperientziak partekatzeko eta hobekuntzak eztabaidatzeko. Era berean, une baliotsua izan zen parte-hartzaile guztiek elkar ezagutzeko eta kontaktuak ezartzeko.




## Manolo Calvo 2025 Saria

Oñatiko komunitateak azken lau urteetan 500 €-ko sari berezia eman du (MANOLO CALVO SARIA). Datorren urtea deialdiaren bosgarren eta azken urtea izango da. Azken etapa honen barruan, Manolo Calvoren omenez web mintegi bat antolatzea aurreikusi dugu, lau saridunak eta Calvo irakasleari lotutako pertsonak gonbidatzeko.

Manuel (Manolo) Calvo García irakaslea (1956-2020) Zuzenbidearen Filosofiako eta Zuzenbidearen Soziologiako katedraduna izan zen Zaragozako Unibertsitatean, eta Zuzenbidearen Soziologiarako Oñatiko Nazioarteko Institutuko zuzendari zientifikoa (2002-2003). Bere heriotzaren ondorioz, Oñatiko Komunitateko (OC) kideek dohaintza eskuzabalak egin zituzten bere zientzia-ondarea babesteko, eta OCk batzorde bat sortzea erabaki zuen bere izena LSNEren bidez eramango zuen sari berezi bat antolatzeko.

## Friendship programa

Friendship programak aukera ematen die nazioarteko bisitariei (ikasleei, irakasleei eta ikertzaileei) eta tokiko biztanleei elkarrekiko kultura-truke batean parte hartzeko, esperientzia ahaztezinak bizitzeko eta hizkuntza-trebetasunak hobetzeko. «Oñatiko Lagunek», tokiko komunitateko kideek, euskal eta espainiar kulturaren ezagutza errazten dute, baita eguneroko bizitzarena ere.

2025eko IRAILA/URRIA: Ongi etorria eta euskal kulturaren aurkezpena masterreko irakasle eta ikasleei eta ikertzaile bisitariei. Trukea ikertzaile bisitariekin, masterreko ikasle ohiekin eta tokiko biztanleeki.



# Erakunde-harremanak

LSNE hainbat erakunde eta unibertsitaterekin lotuta dago, bai estatukoak bai nazioartekoak. Hona hemen horietako batzuk: Eusko Jaurlaritza, AIS/RCSL, Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerbasque, UIK, Deustuko Unibertsitatea.

## Fundazio-erakundeak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ISA RC12

## Lotutako erakundeak

EHU

ikerbasque
Basque Foundation for Science

UNIVERSITÀ DEGLI STUDI DI MILANO

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto

UIK

GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral

OÑATI
dabilen herria


Where
social
meets
legal

# Inpaktu-mapa

LSNE Fundazioa,
lege-soziologiaren eredu.




Norvegia
Finlandia
Suedia
Estonia
Polonia
Txekiar Errepublika
Hungaria
Letonia
Ukrania
Eslovakia
Serbia
Kroazia
Pakistan
Txina
India
Bangladesh
Turkia
Italia
Grezia
Ipar Mazedonia
Arabiar Emirerri Batuak
Hego Korea
Japonia
Taiwan
Filipinak
Indonesia
Australia
Zeelanda Berria

OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW
–
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA
–
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI

Antigua Universidad – Avda. Universidad 8
20560 Oñati, Gipuzkoa – España
+34 943 78 30 64 • onati@iisj.es • iisj.net